

ALEX ANGULO, AKTOREA

«Oso eroso sentitzen naiz istorio txikietan»

Zinemira saria jasoko du Alex Angulok, eta pozik sentitzen da, bai beragatik eta bai bigarren mailako rolak egiten dituzten lankideengatik.

Madril eta Bilbo artean egiten du bizimodua 57 urteko aktore erandiotarrak. Hala ere, ahal duen asteburu guztietan etortzen da Bilbora, familiaren ondora. Umila da, langilea eta umoretsua. Gustuko du era guztietako aktore lanak egitea, eta, denbora librean, gizarte gertatzen den guztiari begira egon nahi izaten du, gero pertsonaiei ahalik eta sinesgarritasunik handiena emateko. Aurten Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatuko da berak parte hartutako film bat. Horrez gain, Zinemira saria jasoko du gaur Viktoria Eugenia antzokian, euskal zinemaren galan, bere ibilbideko aitortpen gisa.

Nola sentitzen zara horrelako sari bat jasotzeko atarian?

Oso eskerdun sentitzen naiz. Ez dizute urtero sari bat ematen, eta, gainera, sari horiek ez dira beti aktoreentzat izaten. Gainera, ez diote eman aktore izar horietako bati,

baizik eta bigarren mailako aktore bati —hor kokatzen dut neure burua—. Horrek pozik sentiarazten nau, bai nigatik eta bai bigarren mailako paperak egiten dituzten nire lankideengatik.

El Gran Vazquez, horixe da lan egin duzun azken filma, Oscar Aibarrek zuzendua. Zinemaldiko Sail Ofizialean parte hartuko du.

Hori da aurtengo beste oparia. Manuel Vazquez komikigilearen bizitzako pasarte batzuk kontatzen ditu; batez ere, Bruguera argitaletxean emandako urteak. Bertan, arrakasta izan zuen, eta porrot egin ere bai. Talentu handiko komikigilea izan bazen ere, zorigaitza zer den ere jakin zuen, Bruguerekin zituen kontratuen ondorioz hogeitun urtean ez baitzen bere pertsonaien jabe izan.

Umorezko filma dela esan daitezke?

Gogora ekartzen dit 50eko hamarkadako zinema italiarra. Oso



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

dibertigarria, pixka bat beltza, pertsonak benetan nolakoak garen agerian uzten duena. Ez da izugarritzko komedia, baina pertsonaia komikiaren eta benetako kotasunaren muga daude. Nik ez nuen ezagutu, baina aske izatearen alde borrokan ari zen jendearen heroiaren berez Vazquez. Oso anarkikoa zen, baina frankismo garaiko gizartearen zaila zen horrelakoa izatea. Beraz, komikiaren bidez ausartzen ziren. Horren adibide dira *La familia Cebolleta*, *Anacleto* eta *Las hermanas Gilda* bere pertsonaia.

Zerrol egokitu zaizu zuri?

Nik egiten dudana benetan ez zen existitu. Nire pertsonaia da Vazquezen atzetik dabilen kontabilitate-arduradun bat. Argitaletxearen ordena pixka bat jarri eta komikiaren edukia pixka bat kontrolatzea da nire lana.

Udazkenari begira, telesail batean ari zara lanean...

República izeneko telesail bat filmatzen hasiko gara lastrer. Diagonal ekoiztetxearekin egingo dugu, eta TVEko lehen katean emango dute. Baina uda honetan beste hiru lan egin ditut, horietako bi

aurrekontu txikiko filmak: Ibarretxe anaien *Un mundo casi perfecto*; Michael Aguilo valentziarraren lehen film luzea, *Area de descanso*; eta Paula Ortizen *De tu ventana a la mía*. Oso eroso sentitzen naiz istorio txikietan, oso hurbilekoak baitira. Ni ikustera joango nintzatekeen lanak dira, irakurri eta zuretzat gordetzen dituzun poesiak liburuak bezala. Oso pozik lan egiten dut jende horrekin, ilusioa daukan jende gaztearekin; bizitasuna ematen digute, batez ere zahartzen eta inozentzia galtzen ari garenoi.

Beraz, sektoreak antzeman dio krisiaren eraginari?

Bai, nabaritu da beherakada. Film gutxiago egiten dira; arrisku gutxiago hartzen da orain, eta lanbide honetako profesionalak gaizki pasatzen ari dira. Lanbide hau oso ezegonkorra da.

Ez zaizu iruditzen film jakin batzuei izugarritzko bultzada ematen zaiela?

Bai, baina badaude beste film mota batzuk beste era bateko istorioak kontatzen dituztenak, entrenitzez gain arimara iristen direnak. Liburuak eta poesiak ematen duten hori lor daiteke zinemarekin ere. Zinemara joatea kultura eta lagunarteko ekintza bat da, eta hori pixka bat galtzen ari da. Batzuetan filmak etxean ikusiz amaitzen dugu, eta jendea kalera zinemara ateratzearen alde lan egin behar dugu.

Ba al dago orain arte egin ez eta egitea gustatuko litzaizukeen lanen bat?

Bai, hurrengoa. Bizitzak ustekabeak ematen dizkizu. Gauza berriak eskaintzen dizkizu. Lan berriak aukeratzekoan, batzuetan hanka sartzen duzu, eta komeni ez zena aukeratzen duzu. Baina nik uste dut film bakoitzarekin hutsetik hasten zarela, zeren beste zuzendari bat duzu, beste begirada bat da.



AUKERATU ZURE
ARGI BEREZIA

I LUZILUMINA
+ . U Z
1987 - 2007

PROIEKTUAK
F.G. LORCA pas., 10-2.- 2. bulegoa.
20014 DONOSTIA
Tel./Faxa: 943-46 20 35
luzestudio@luzilumina.com

www.luzilumina.com



merkalitatea

ERAKUSKETA
ZUBIETA, 42-BEHEA
20007 DONOSTIA
Tel.: 943-43 19 35 • Faxa: 943-42 33 17
luz@luzilumina.com

GOZOTEGIA
OIARTZUN
BOMBONERIA
HELADERIA
20001 DONOSTIA

Igentza, 2
Tel. 943 42 62 09

Tapiceria
Arregi s.l.

Marina, 3
Tel.-Faxa: 943-46 40 06
20007 DONOSTIA

GANBARA
PINTXOAK-ERRETEGIA

Onddoak, perretxikoak eta trufak,
sasoian sasoikoak.
Arraina, txingarretan erreta.
Askotariko pintxoak, aukeran.

San Jeronimo 21 - DONOSTIA
Tel.: 943-42 25 75



IRUSOIN

ZINEMA, TELEBISTA ETA BIDEO PRODUKZIOAK

ZUATZU Parkea
Urgull 6 eta 7 lokalak
20018 DONOSTIA
Tel.: 902 227 100
Faxa: 943 316 939
zuatzu@irusoin.com

Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 BILBAO
Tel.: 94 6216007
Faxa: 94 4425442
bilbao@irusoin.com

www.lankor.com
943 42 81 11

Lk lankor
Kongresu eta Ekitaldien
Antolatzaile eta Muntatze Altituak

Disinua | Karpak | Ezernetziak | **baiza zinemaldian ere!**




OROIMEN HISTORIKOA. Saturrarango espetxean emakumeek bizitakoa kontatzen du *Izarren argia* filmak. BALEUKO

EUSKARAZKO ZINEMAREN FESTA

Zinemira saria jasoko du gaur Alex Angulok euskal zinemaren galan. Euskarazko filmak ugaritu dira zinemaldian.

Euskarazko zinema eta euskal ekoizpenak tarte zabala izaten ari dira aurten ere Donostiako Zinemaldian. Iaz abiatu zen Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama izeneko atala, eta horren barruan aurten egindako euskal film esanguratsuenak ematen ari dira. Horren ondorioz, bigarren urtez jarraian euskal zinemak toki handiagoa hartu du 58. Zinemaldian.

Urte osoan euskarazko edota euskal zinemagileek egin dituzten lanen artean aukeraketa bat egi-

ten da, gero Zinemira atalean eskaintzeko. Donostiako Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak antolatutako atala da, eta EITBren babesa du. Laguntzaileak, berriz, Ibaia Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte eta EPE Euskal Produktoreen Elkarte dira.

Emango dituzten filmez gain, Kimuak 2010eko film labor sortaren proiektzioa izango da; urteko euskal film laburren aukeraketa bat da. Kimuak Eusko Jaurlaritzaren programa bat da, eta Euskadiko Filmategiak kudeatzen du.

Mesón Martín
Elkano 7
Especialista hestebete iberikoetan
Denetarikoa pintxoak
Kartako jatetxea

Elkano 7 Donostia 20004
Tel.: 943 422 866



Enjoy zinemaldia, gozatu filmak!!
Gozatu festak, hizkuntzak erabiliz.
Ingelesa, frantsesa eta txinera, haur, gazte eta helduentzat.

**Ikastaro orokorrak eta espezializatuak,
tituluaren prestaketa, enpresentzako ikastaroak...**

902 012 912

APUNTA ZAITEZ!

LAGUNZA

Entsekuak: Urteko 10, 1 - Muzo 5, Ibaia - San Bartolome, 10 - Anara: Euzko-Arriola, 14 - Gero: Secundino Erazola, 30
Baita Berez: Barakaldo Kalea 3, Ibaia
Baita: Jose Ramon Aguirre 1, 40.

www.izuzeta.es

REC
Grabaketa Estudioa

BIKOIZKETA
PUBLIZITATEA
POSTPRODUKZIOA
AUDIOKO PLANAK
DOLBY HOMOLOGAZIOA ZINERAKO

Zuatzu kalea, 3
Urgull Eraikuntza
20018 DONOSTIA
Tel. 943 312 112
RDSI 943 316 757
Faxa. 943 312 059

rec-estudio@rec-estudio.com www.rec-estudio.com

Film horiek nazioartean erakustez eta sustatzeaz arduratzen da. Emanaldi horiek profesionalentzako izango dira bakarrik.

Saria Angulorentzat

Euskal zinemaren gala gaur izango da, Viktoria Eugenia antzokian. Txaber Larreategik eta Josu Martinezek elkarrekin egindako *Prohibido recordar/Debekatuta dago oroitzea* filma estreinatuko da gala horretan.

Horrez gain, Alex Angulo euskal aktoreak Zinemira saria jasoko du; zinemaren munduan orain arte egin duen lana goraiapatuko dute sari horren bidez.

Zinemiratik kanpo

Zinemira ataletik kanpo, beste euskal film batzuk ere emango dituzte. Sail ofizialean, Jose Maria de Orbe zinemagilearen *Aita* filma emango dute. Donostiarraren bigarren film luzea da, eta Kutxa-Zuzendari Berriak atalean ere parte hartuko du.

Beste filma Zabalegi saillean eskainiko dute. Mikel Ruedak zuzendutako *Izarren argia* pelikula eman dute Zuzendari Berriak atalean. Zinemagile bilbotarraren lehen film luzea da. 36ko gerran Saturrarango kartzelan emakumeek jasan zituzten zigorrak erakusten ditu filmak. Askatasuna galtzeaz gain, haurrak galdu zituzten batzuek.

Zinemirako egitaraua

Euskal Herrian aurten egin eta estreinatu diren filmak ematen ari dira Zinemira atalean. Zortzi film luzeetatik gehienak dokumentalak dira, eta memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin egindakoak dira gehienak.

ESTREINALDIAK

» Debekatuta dago oroitzea

Tokia: Viktoria Eugenia antzokia (Euskal zinemaren gala).

Ekoizleak: Eneko Olasagasti eta Iurre Telleria.

Zuzendariak eta gidoilariak: Txaber Larreategi, Josu Martinez

Iraupena: 53 min.

»Urte asko pasatu dira 1944an Saturrarango emakumeen kartzela itxi zutenetik. Memoria historikoren alde lan egiten ari den jendeari esker, 36ko gerraren puntu ilun ugari argitzen ari dira. Baina oraindik asko dira ahanzturan geratu direnak eta gogora ekarri beharrekoak.

» Amerikanuak

Zuzendaria: Nacho Roig.

Gidoilariak: Nacho Roig.

Argazkia: Gorka Bilbao.

Ekoizlea: Zigor Etxeberria Enbelta (Berde produktzioak).

Ekoizpen laguntzailea: EITB.

Iraupena: 91 min.

»Estatu Batuetako Nevadara, Elkora joandako euskal etorkin batzuen historia kontatzen du. Herriarrazinari da, herrialde arrotz batean bizitzu duina eramateko ahaleginaz eta komunitate bateko kide izateko sentimenduz.

» La plaza de la música

Zuzendaria: Juan Miguel Gutierrez.

Gidoilariak: Javi Gutierrez.

Argazkia: Pello Gutierrez Peñalba (Animazioa).

Ekoizlea: Kany Peñalba (Zazpi Terdi ekoiztetxea).

Iraupena: 70 min.

Amiantoak eragindako heriotzak ditu gai nagusi dokumental horrek. Langileek dituzten zailtasunak kontatzen ditu: biktimen aurpegiak ikusten dira, eta amiantoak kutsatutako euri sortu zaizkien gaitzei buruz hitz egiten da.

» Sagarraren denbora. 25 urte deserritik itzultzen

Zuzendariak: Josu Martinez eta Txaber Larreategi.

Gidoilariak: Josu Martinez, Txaber Larreategi.

Argazkia: Ibai Castro.

Ekoizleak: Haizea Belza eta Txema Uriarte (GITE-IPES).

Iraupena: 67 min.

»Kristiane Etxaluz zuberotarra eta Alfonso Etxegarai bizkaitarra ez dira ohiko bikotea. Euskal independentziarekiko euren konpromisoa aspaldikoa da. Alfonso Afrikako irla batean deserrituta bizi da. Beraz, 7.000 kilometroko distantzia dago bien maitasunaren artean. Hala ere, euren begiradak Bidasoaren herrian daude beti, eta euren bihotzak sagarren denboran. Oraindik iritsi ez den sagar garaia da.

» Ttaup, ttaup! Arraun kolpeka

Zuzendaria: Eneko Dorronsoro.

Gidoilariak: Eneko Dorronsoro.

Argazkia: Eneko Dorronsoro.

Ekoizlea: Iban Garate (Tuntuxa Irudi Fabrika).

Iraupena: 67 min.

»Zumaian kokatzen da dokumentala, eta 2007ko neguan filmatuta dago. Hamahiru arraunariren elkarbizitza kontatzen du filmak.

URTEKO EKOIZPENAK

» 80 egunean

Zuzendariak: Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.

Gidoilariak: Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga.

Argazkia: Javi Agirre.

Ekoizleak: Xabier Berzosa eta Fernando Larrondo (Irusoin).

Aktoreak: Itziar Aizpuru, Mari Asun Pagola, Jose Ramon Argoitia, Zorion Egileor, Ana Gabarain.

Iraupena: 105 min.

»Axun eta Maite gaztetako lagunak dira, eta ospitale batean topo egingo dute 50 urteren ondoren. Berehala konturatuko dira euren arteko kimikak bere horretan jarraitzen duela oraindik. Halako batean, Axun konturatuko da Maite lesbiana dela, eta Axunek bere sentimenduei aurre egin beharko die.



» Mugaldekoak

Zuzendariak: Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo.

Gidoilariak: Patxo Telleria, Fernando Bernues, Kike Diaz de Rada, Mireia Gabilondo, Harkaitz Cano.

Argazkia: David Bernues eta Xabier Lozano.

Ekoizlea: La Tentacion Producciones.

Aktoreak: Mireia Gabilondo, Isidoro Fernandez, Matxalen de Pe-

dro, Iñaki Beraetxe, Sara Cozar, Iñaki Ricarte, Getari Etxegarai eta Klara Badiola.

Iraupena: 96 min.

»40ko hamarkada da. Hego Euskal Herrian Espainiako gerra amaitu berria da, eta Ipar Euskal Herrian, berriz, Alemaniako armadaren menpe bizi dira. Nafarroako mugan pilotu ingelesak mugaz bestaldera eramango dituzte isilpean, kontrabandoko bideetatik. Horrez gain, herritarren istorioak ezagutuko ditugu: maitasuna, fidelitasuna, traizioa eta abar.



» Simplemente

Zuzendaria: Jon Andueza.

Gidoilariak: Marian Gotxel.

Argazkia: Pello Gutierrez.

Ekoizlea: Puxtari.

Aktoreak: Dani Loredó, Ana Mota, Saioa Larrea, Alberto Hermoso, Urtzi Urrutia, Iñigo Hermoso, Zaloa Unda, Mikel Martija, Haritz Zubietza eta Joannes Uriarte.

Iraupena: 77 min.

»Dantza talde batek Oriñongo hondartzan emanaldia eskaintzea erabaki du. Ez da erraza izango, kanpoan ez baitute sekula dantzatu. Dantzariak egun batzuk lehenago iritsiko dira hondartzara, eta egun horietako elkarbizitza ikusiko da filmean.

A FUEGO NEGRO

MAITEXA
TABAKOAK

Bizente Elizegi, 3 • ORERETA
TEL: 943-51 21 10

JACARANDA
Loradenda

ARCCO AMARA
IRUN PLAZA 6
20011 DONOSTIA

TEL./FAXA: 943-46 57 55
jacarandaloreak@terra.es

B R A N K A

DONOSTIA
E. Txillida pasealekua
(Haizeen orrazia)
TEL.: 943 317 096

DIEZ S.A.

Autobusak

- Autokarren eta mikrobusen zerbitzu berezia
- Nazio eta nazioarteko bidaiak
- Irtenaldiak, ikastolak, lantegiak, sagardotegiak...

Mundaiz kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Faxa: 943 27 11 27 / 20012 DONOSTIA

Posta elektronikoa: autocaresdiez@euskalnet.net

Berezitasunak:

- Produktu iberikoak
- Ogitartekoak (ogi egin berria)
- Pintxo hotzak eta beroak
- Haragia eta arraina parrillan
- Eguneko menua eta karta
- Enpresa bazkariak jantoki pribatuak

L A T E T X E A
ERRIBERA

Tel.: 943 210 300 - Portuetxe, 15 - 20018 IGARA - DONOSTIA

JOXE PORTELA › IBAIA IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE BURUJABEEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Beharrezkoa da ikus-entzule gehiagorengana iristea»

Euskal hiztunari militantzia ahalegin bat eskatzea ez dela nahikoa dio Joxe Portelak, eta sorkuntzan eta ekoizpenean dihardutenek ahalegin handiagoa egin behar dutela dio.

Euskarazko filmek gero eta protagonismo handiagoa dute Donostiako Zinemaldian. Aurten ere euskarazko filmen eskaintza zabalago da, baina egungo krisiak euskal zinemagintzak dituen arazoak areagotu ditu.

Bost urte igaro dira euskara hutsean egindako lehen film luzea egin zenetik. Zer bilakaera izan du ordutik euskarazko zinemagintzak?

2005ean aukeratu eta estreinatu zen Zinemaldiaren historian lehen aldiz euskara hutsean filmatutako lehen filma. *Aupa Etxebeste* izan zen ikus-entzunezko euskal ekoizlearen eta Euskal Telebistaren arteko lankidetzaren lehen fruitua. Hiztarmen hori berriro eta hobetu egin zuten 2008an, eta, ondorioz, aurten ere euskarazko beste ekoizpen baten estreinaldia izango dugu Zabaltegin: *Izarren argia*. Zor-zigarrena da. Horrez gain, euskaraz estreinatu diren animaziozko film luze batzuk ere izan dira.

Une honetan ba al dago proiekturik?

Aurreratu dezakegu euskarazko hiru film bukatuta daudela jada eta aurten estreinatuko direla horietako bi; beste bi produkzio fasean daude, eta hainbat proiektu abiatuta.

Nola lor daiteke finantzaketa euskarazko filmak bultzatzeko?



IBAIA

Zinema ekoizpena Europan diru laguntza publikoaren eta telebistaren parte-hartzearen menpe dago neurri handi batean. Estatuan eta

Euskadin menpekotasun hori handiagoa da beharbada. Ekoizpen handiko garaia bizi ditugu, baina sektorea ez dago egoera one-

an. Aipatutako ekoizpen gehienak aurrekontu txikiekin eginda daude, nazioarteko ereduetatik urruti.

Nola lortuko duzue entzule gehiagorengana iristea?

Beharrezkoa da ikus-entzule gehiagorengana iristea. Ez da nahikoa euskal hiztunari beste militantzia ahalegin bat eskatzea. Udal aretoen sare bat abian jarri beharra dago —alternatiba bat abian da jada—: erakusle pribatu batzuekin akordioak egin, ekoizpen horiek modu merkean eta ikus-entzule euskaldunengana hurbiltzeko euren etxetik gertu dauden aretoetan. Sorkuntza eta ekoizpen lanetan gabiltzan guztiok ahalegin handiena egin behar dugu gero eta produktu hobek eta lehiakorragoak egiteko, ikus-entzuleek eskatutakoak.

Zer eragin izan du euskarazko ekoizpenean Zinemaren Legeak?

Zinemagintzaren alorrean izan diren azken lege aldaketen ondorioz, urteko zinema ekoizpenen kopurua gutxitzeko joera dago. Horrez gain, Zientzia eta Ikus-Entzunezkoen Institutuak (ICAA) aurrekontu txikiko filmak gutxiago laguntzeko joera zabaltzen ari da.

Zer eragin izan du krisi ekonomikoak? Nabaritu al da zinemaren sektorean?

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sai-

lak ematen dituen diru laguntzak ez dira handitu azken urteetan. Duela bi urte adostutako laguntza plana atzeratu egin da, arrazoi ekonomikoengatik. Krisiaren beste eragina E/TBn ikus dezakegu. Fikzioko telesailetan aurrekontu murrizketa handia egin dute; kontuan izan behar da alde aurretik ere baldintza zailetan lanean ari zirela sektore horretako langileak. Euskarazko zinema ekoizpenetan parte hartzen duten profesional berak dira; horietako askok beste lan aukera batzuk bilatu behar izaten dituzte bizitzeko.

Euskarazko filmei eta ekoizpenei tarte zabalagoa, nabarmenagoa ematen die gaur egun Donostiako Zinemaldiak. Zer omura ekarri dizkio horrek zinemagintzari? Elkarlana ezinbestekoa da, datozen urteetan euskaraz filmatutako ekoizpenak izan ditzauden zinema aretoetan, Zabaltegin eta Zinemaldiko Sail Ofizialean.

Zer ekarpen egiten diote euskarazko zinemak eta bertan egindako produkzioek euskal gizarteari?

Adierazpen artistiko eta sortzaile gisa, zinema ezinbestekoa da herri bateko kultur nortasuna eraikitzeko, horri eusteko eta helarazteko. Euskararen etorkizuna ere kultur adierazpen horietan —besteak beste, zinemaren— izango duen murgiltze mailaren menpe dago.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozu euskarazko zinemari?

Urtean euskarazko bi zinema ekoizpen egin daitezkeela ustedut, baina horretarako hainbat gauza lortu behar ditugu: aurrekontuari dagokionez, proiektu handiagoak finantzatzeko; E/TBren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza berriro eta indartu; ustiapen bide berriak lortu —babesleak lortu pizgarri fiskalekin, sakelako telefonoaren operadoreak eta Internet, beste telebista kate batzuekin hitzarmenak egin gaztelaniazko telebista eskubideen ustiapenerako...

KUTXA-ZUZENDARI BERRIAK SARIA

Indarrak lagun zaitzala

Zinema eta zu

LAGUNTZAILE OFIZIALA

DONOSTIA ZINEMALDIA FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN INTERNATIONAL FILMFESTIVAL

gizarte
kutxa
Zugandik Zugana